ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko martxoaren 1a, ostirala • 26 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ITURRIETAKO PARTZUERGOA

**Jendaurrean jartzea landa eta hiri ondasun higiezinen gaineko zergaren eta zabor bilketaren tasaren 2019ko erroldak eta haiek ordaintzeko epea**

Jendaurrean egongo dira hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, 2019ko zerga errolda hauek:

— Landa eta hiri ondasun higiezinen gaineko zerga.

— Zabor bilketaren eta suntsitzearen tasa.

Aipatutako epean errolden aurkako alegaziorik aurkezten ez bada, kobratzeko epea hasiko da.

Borondatezko epea: 2019ko abenduaren 1etik 15era bitarteko egun baliodunak, biak barne.

Zergadunek udal diruzaintzan ordaindu ahal izango dute zerga aipatutako epean, 10:00etatik 14:00ak arte.

Epe hori igarotakoan premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketarako Araudi Orokorrak, kobratu beharreko kuotari ehuneko 20ko errekargua ezarrita; errekargu hori eta luzapenekoa bateragarriak dira.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dut.

Agurain, 2019ko otsailaren 6a

*Lehendakaria*
*FRANCISCO ALDA SAGASTI*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.03.01 06:42:41 Z